

Euskal leiendak

Egun on denoi:

Guri egun interesgarria zaigun alor honetan, adieraziko dut bizi-toki sakanatuak eta auzo txikiak nekazari munduan duela, batez ere, bere girorik gogozkoena. Hortxe, ingurugiro berezi horretan, izadiarekin harremanetan, iluntasuna eta gaua ezagutzen eta bizitzen diren lekuetan ageri da, berez bezala, animismoa deritzana, eta beraz, hor gertatzen da irudimen-sorkariak, leiendak bizi eta loratzeko girorik egokiena.

Mundu horretan, etxe eta auzoak bata bestearengandik urrun zirenean, kontatu ohi ziren zaharrei, aurrekoei entzundakoak. Uste gabe ahoz-ahoz mezu aberatsa aldarrikatzen zen, eta beroietan aise uztartzen ziren kondaira eta kontakizunen alor mugagabea, eta ez ahaztu, honek ere bere garrantzia bait du, ez ahaztu diot irudimenera datorrena, noizbait, zentzuen bidez bizitutakoa izan ohi dela.

Leiendak, maiz aski, mendiruntz garamatza. Mendia zerurantz bait doa, eta bere sakratasunari buruz hor agertzen zaizkigu Olinpo, Tabor eta Sinai mendiak, besteak beste.

Mendiak leize-zulora garamatza, eta ziur asko honek izango du berarekin kontakizun aberasgariren bat, eta horrek bidegurutzera, bizitza arrunta eta irudimenezkoa elkartzen diren gunere horretara.

Mendia, leize-zulua eta bidegurutzea aipatu ondoren, zubiaren garrantzia ere aipa dezadan, kontakizun alorrean. Oraingoan, zubia ez da igarobide, giza kontroletik at gertatzen den ustegabeko miragarritzko zerbaiten kokagunea baizik.

Zubia aipatu dugu, eta hau Leitizan jasoa dut; gauza itxuragabe batek zubia igarotzen zuen alde batetik bestera, gauero ordu berean.

Inguruetako jende guzia bildurtuta zegoen gauza itxuragabe hura ikusirik, eta emakume bat izan zen adierazi zuena berak jakingo zuela gertakizun haren berri. Orduan, emakume horri esan zioten agindua betetzen bazuen ondo ordaindua izango zela.

Bere ordu jakinean emakumea zubira joan zen eta zubi erdian larregorritan jarri, zutik eta burua atzera boteaz hanka tartetik aurpegia agertuz buruko ile luzeak zintzilik zituela.

Bulto itsusia heldu zen, beti bezala, eta bere aurrean gauza hura ikusirik, honela esan zuen: *Infernuko deabrue nauk, iruetaneun urte bazetit ola nabillela, baiña olakorik oraindik ez diat ikusi.*

Etsaia bildurturik itzuli zen eta alde egin, betirako izkutatuz.

Araban, Ullibarri Haraneko biztanle zen Juan de Simon izen bereko etxean bizi zen, urte batzu geroago Nikolas Lopez de Ziordia bere suhia bizi izan zenean bertan. Gizon hau gogora datorkit gizaki burutsu eta atsegina bezala. Arotza edo zurgina zen eta bere lanari buruz badut idatzirik nire liburu batean idazlanik.

Horra bada, aipaturiko Juan de Simonen aita, bere etxean iruten aritzen zen, gauaz, kriseiluaren olio nahiz gas-argitan, eta hara non ustekabeen, aurrekaldean jartzen zaion gizon bat, oso haundia eta buztan luzeduna. Mamutzar hau, deabrua?, bapatean desagertu zen, hitzik egin gabe.

Arabar irulea zeharo izutirik, lanari utzi eta bere gelan ezkutatu zen babes eta bake bila.

Nire berriemailearen amona, Nikolasa Antonia Ustoa, *Etxetxo* baserrian bizi zen, gero *Joangonea* izenekora pasa bazen ere. Bi baserri hauek Berastegikoak dira.

Nikolasa Antonia *Etxetxon*, gaixorik, ohean zegoen, eta Jose Maria apaiza jaunari esan omen zion meza atera behar ziola bere izenean.

Apaizaren baiezkotza erantzuna entzunda, Nikolasa Antoniak eskua buruko azpian sartu eta dirua ateratzeko keinua egin zuen. Diru hura *Napoleon* izenekoa omen zen, hemeretzi errealean baliokoa, eta mezaren ordain-beharra berriz lau pezeta edo hamasei errealekoa.

Nikolasa Antoniak esku hutsa apaizari luzatu omen zion, eta apaiza ixilixilik gelditu. Orduan Nikolasak adierazi omen zion: *Gainerako sobranterekin erresponsoak atera bitza.*

Hurrengo egun batean, gaixoak honela esan omen zion Jose Maria apaiz jaunari: *Bart gauean infernukoak azaldu zaizkit beren adar eta guzti.*

Apaizak galdetu omen zion orduan: *Infernutar horiek, beraz, adardunak ditun?. Bai jauna bai; nahi badu sinistatu eta nahi ez badu ez, baina Jainkoak ez dezala nahi berorrek hoiek ikustea.*

Eta deabrua nola uxatu? Gauetz noiz edo noiz oilarrak kukurruku jotzen badu, gatz ale batzu surtara bota eta kredoa errezatu. Honela uxatzen dira

inguruetako etsai guztiak. Hau Erreterian, Zamalbide auzoko *Lubeltza Berri* baserrian esan zidaten.

Orain emango dizuedan berri hau ez da nik jaso, Ataunen Jose Migel Barandiaranek baizik, 1903garren urtean, eta *Patxi errementariari* gertatua omen da. Infernuan ere hartu ez zuten gizona. *Hori inpernuan ere ez ditek hartuko* esaera zaharra egiaztatuz.

Patxi errementaria erabateko gaiztoa omen zen. Behingo batean infernuko deabru bat bidali omen zioten Patxi infernura eramanean. Hala, deabru hori goizean Patxiaren sutegian agertu omen zen. Patxi han ari zen lanean, aldi behin txingura gainean mailuka edo auspoari eraginez txingarrak astintzen, aizkora, besara-hortz eta antzeko burdin tresnak surtan lantzen.

–Egun on–esan omen zuen deabruak.

–Baita hiri ere.

–Egundainoko gaiztoa haizela eta, inpernura eramateko asmoz etorri nauk.

–Ez duk gaizki esana. Lehenengo gosari-mokadua egin dezagun.

–Beno ba.

Eta hala joan omen ziren gosaltzera. Biak mahaian jarri omen ziren, eta baita gosalduek ere.

Gosaldoan jeiki omen zen *Patxi errementaria* eta deabruari honela esan omen zion: *Bai, oraintxe abia gitezkeek*.

Deabrua hasi omen zen nagiak ateratzen bezala; baina ezin omen zen inola ere jaiki. Mahai alderdi hura pikeaz igurtzita omen zeukan Patxi, eta hantxe erantsita gelditu omen zen deabru gizarajoa.

Patxi bertan eduki omen zuen deabrua hiru urtetan, harik eta suaz bertuta pikea urtu zion arte.

Deabruak bere burua libre ikusi zuenean, laister aldegin omen zuen handik, Patxi gehiago erreparatu gabe. Patxi berriz, gero eta gaiztakeria haundiagoak egiten jarraitu zuen.

Halako batean infernutik beste deabru bat bidali omen zioten, infernura eramanean.

Aurreko deabruak esan omen zion bigarrenari: *motel! Patxi mahian jaritzeko agintzen badik, ez hadi jar!*

Bigarren deabru hori goiz batean Patxiaren sutegian agertu omen zen.

–Egun on–esan omen zion Patxi.

–Baita hiri ere.

–Gaiztakeria gogorak egiten omen dituk munduan, eta infernura eramateko ordena diat.

–Ez duk gaizki esana. Lehenengo gosari-mokadua egin dezagun.

–Joan gintezkek.

Biak Patxiren sukaldera sartu omen ziren.

–Jarri mahaian, adiskide –esan omen zion Patxik deabruari.

–Ez, ez zeukat mahian jarri beharrik.

–Etzan hadi orduan, nik gosaldu bitartean, horko zizailu horretan, hainbesteko bidean etorrita nekatuta egongo haiz eta.

–Ondo esana duk. Eta hala etzan omen zen zizailu gainean.

Patxik gosaldu zuenean, *bai, oraintxe joan gintezkek*, esan omen zion deabruari. Baina deabruak eginahalak eginagatik, ezin omen zen jaiki zizailu gainetik. Zizailua ere pikeaz igurtzita eduki Patxik.

Eta han eduki omen zuen hura ere hiru urtetan, harik eta azkenik, pikea suaz urtu zion arte. Askatu zenean, hankak arin zituela aldegin omen zuen infernura deabru gizarajoak. Patxi errementaria berriz ere munduan geratu omen zen. Eta lehen baino gaiztakeria haundiagoak egiten.

Patxirena ez zela gizabidea eta berriz ere infernutik beste deabrua bidali omen zioten.

Hirugarren deabruari honela esan omen zioten aurreko biek:

–Motel! Patxi mahaian jartzeko agintzen badik, ez gero jarri; ezta zizailuan etzateko esaten badik ere.

–Ondo zegok –esan omen zuen deabru hark, eta mundura aldegin.

Halako goiz batean, deabrua Patxiren sutegira sartu eta *egun on* esan omen zion.

–Baita hiri ere.

Gaiztakeriari erabat emanda hagoela ziotek denek. Ez al duk honela?

–Ez duk hori egia.

–Bada, nik hi infernura eramateko ordena diat, eta joan egin beharko diagu.

–Ez duk gaizki esana. Baina lehendabizi gosari txikia egin dezagun behinik-behin.

–Jan genezake.

Sukaldean sartu zirenerako, *jarri mahaian*, esan omen zion Patxik.

–Ez, ez zeukat jarri beharrik.

–Etzan hadi orduan horko zizailuan, hainbesteko bidean etorrita nekatuta egongo haiz eta.

–Ez, ez netxok nekatuta.

–Motel!, igo hadi orduan hor atariko piku gainera eta jan ezak nahi duan adina piku, nik bizigarri pixkat hartu bitartean. Pikuak ederrak zeudek eta.

–Bai, horixe egingo diat. Ondo esan duk.

Deabrua piku gainera arin igo omen zen.

Gosari txikia egin zuenean, atarira atera eta deabruari deitu omen zion Patxik.

Baina deabrua ezin omen zen jeitsi. Piku ere pikeaz eginda egon eta deabrua han erantsita gelditu omen zen.

Eskolume guztiek egunero harrika egiten omen zioten deabruari.

Hau deiadarka aritzen omen zen; baina Patxik entzungor egiten omen zuen, eta hiru urtez bertan eduki, harik eta pikea suaz berotu eta urtu zuen arte.

Orduan, Patxirekin egoteko gogorik gabe, deabruak presaren presaz aldegin zuen.

Errementaria berriz ere munduan gelditu zen.

Denbora joan eta denbora etorri, azkenean Patxiri ere heriotze ordua iritsi zitzaion.

Hil ondoren, mailua, burrunzia eta tenazak hartu eta infernuko bidea hartu zuen.

Mailuaz infernuko atea jo eta barrutik:

–Nor da?

–Patxi errementaria –bere erantzuna.

Hau entzutean deabru guztiak ateari eustera bildu ziren, Patxi errementaria sar ez zedin.

Deabruetako bat, errementaria ezagutuko zuela eta, ate-zulotik begira jarri zen. Orduan, Patxik burrunzia erabiliz begia atera omen zion.

Beste deabruak, hitzetik ezagutuko zuela eta, belarria jarri omen zuen ate-zuloan. Errementariak tenazez baliatuta belarria kendu omen zion.

Azkenean, infernuak ez zuela hartzen eta errementariak zerura jo omen zuen.

Jo zuen zeruko atea eta San Pedro-k galdetu omen zion ea zein zen.

–*Patxi errementaria* –erantzun omen zuen eta San Pedrok ez zion zeruran sartzen utzi nahi.

Orduan, andere zahar bat azaldu zen ate ondoan, eta Patxi errementaria ikusi zuenean oso larritu zen, eta berebiziko ondoesanez errementariari hasi zitzaion gizon benetan ongilea zela esanez, beldurrak eraginda noski.

Honelako gauzak entzunda, San Pedrok zeruko atea ireki zituen eta errementaria sartu. Patxi errementaria zeruan aurkitzen da».

Esan bezala, ipuin hau Jose Migel Barandiaranek 1903garren urtean Ataunen jaso zuen.

Patxi Errementariak gogora dakarkit Beteluko eskribauari gertatua, baina errementariak baino amaiera okerragoa izan zuen. Beno, amaiera ez, amaierarik ez duen ibileran aurkitzen bait da.

Nafarroako eskribau bat, bere etxearen izena ixilpean gordeko dut, beti kapa jantzita ibiltzen omen zen. Legegizona gaixotu omen zen eta hiltzeko zorian zegoela, honela esan zuen: «Ken ezazue kapa hori nere begibistatik, hori jantzita arruinatu ditut Betelu eta Araitz eta Larraun bailaretako herriak!».

Eskribaua hil zen eta bere buruari esan edo galdetu zion: *Nora joango nauk? Zerura ezta pentsatu ere; purgatoriora ere ezin naiz joan, infernura joan beharko diat.*

Infernuko atea jo zuen behin eta berriz, leihatila ireki eta etsai baten aurpegia azaldu zen. Eskribaua ikusi orduko leihatila itxi egin zuen eta beste deabrueri oihuka esan: *Zatozte, zatozte ateari eustea, eskribaua hemen diagu eta hori hemen sartzen bada denak galduak gaituk.*

Eskribaua kanpoan gelditu zen, eta harrez gero zaldi gainean dabil, gaez zaldiaren perra-hotsak entzuten direlarik.

Uztegin entzuna dut beste leienda hau.

Etxe batean gizon bat hil zen eta kapa bedeinkatua jantzi zioten. Gero, kapa sutan zuela gaez airean zebillen batetik bestera. Halako batetan etxera itzuli zen kapa kendu ziezaioten eskatuz, kapak infernuan sartzea galerazten ziola eta.

Etxeok kapa eskuz kentzera ez ziren ausartu eta aitzurrez kendu zioten. Gertakizun honen bidez jakin ahal izan dugu arima erratua izatea infernua bera baino zigor haundiagoa dela.

Baina nire mintzalditxo honen hasieran aipatu ditut bizi-toki sakabana-
tuak eta auzo txikiak; orain bil gaitezen, bada, horien antzinako girora. Hurbildu edo sar gaitezen, arin eta azalez, urixka haien mundura.

Herri guztiek, txikiak eta haundiak, beren mugak dituzte, eta gu mugari horien gora-beheretara hurbilduko gara, gure gaiaren barnean urratsak emanaz.

Aralarko mendietan gauerdiko hamabietan artzainek taloburnia aidean eta sutan ikusten zuten, aldi berean antsi bat entzunez. Denak ikaratzten ziren.

Gau batean herria bildu zen eta inork ez zuen mendira joan nahi aurpegia ematera. Baina artzain haien lagun batek, bera ere artzaina, zerbait mozkor- turik aurkitzen zena, bere lankideei horrela esan zien: *Inor ez al zarete ausar- tzen hara joaten?; ni joango naiz*. Esan eta egin. Joan zen mendira eta, beti bezala, gaueko hamabietan taloburnia airean azaldu zen. Hau ikusirik, artzai- nak honela esan zion: *Zer behar duk? Onez baldin bahator, mintza hadi; eta txarrez bahator, alde egin ezak*. Orduan, izkutuko gizonak deiadarka honela esan zuen:

Hau karga, hau karga!
Uztak ba –artzainak erantzun.
Egidak mesede bat –izkutukoak.
Egingo diat ba –artzainak.
Har ezak aitzurra –izkutukoak.

Artzainak aitzurra txabolatik hartu eta taloburnia sutan agirian zeraman izkutuko gizonarekin Intzako Joangoneko sorora joan ziren. Bertan artzainak hau entzun ahal izan zuen: *Atera ezak mugarri hori*, eta aldiberean gizon bat kapa jantzita eta taloburnia sutan zeramala agertu zitzaion. Gizon honek zazpi oin neurtu zituen aipatutako sorotik hasita Zamarginen sorora, eta artzainari esan zion: *Mugarri hori sar ezak hemen*. Hau egin ondoren, artzai- nari honela eraso zion kapadunak: *Lehen ez nintzen ez zerurako eta ez infer- nurako, orain ordea, infernurako naiz. Aitzur horrekin kendu iezadak kapa hau*.

Kapa eskuz ikutu gabe, sutan airez joan zen eta gehiago ez zen ezer entzun eta ez taloburnirik ikusi. Hau uztegin jasoa dut.

Nafarroako Gaintza eta Uztegi urixkak eztabaidetan zebiltzan. Uztegi Gaintzari Malloak inguruko lurak kendu nahirik, eta baita kendu ere.

Hil zen eztabaida honetan buru ibili zen letradua eta bere elizkizunak egi- terakoan, apaiza mezerdira heldu zenean, non azaltzen den sutan aldare aurrean denen bistan eta apaizari esan: *Niri eliz-funtziorik ez egin. Infernua aurkitzen naiz eta zuen errezoek ez dute egiten sua indartu besterik*. Hau en- tzunik, apaizari nahigabea egin eta lurrera erori zen.

Infernua zegoen gizon hark Azkarateko apaiza laguna zuen, eta lekukoa izan zen Uztegi eta Gaintzako alkateak Malloara joan zirenean mugarriak aldatzera.

Astun-alde izena daraman lekura heldu arte ez zuten bere lanean oztopo- rik izan. Hemen aurkitu zuten mugarri kurutzeatua eta lainoa honela mintza zitzaian:

Astun-alde, Astun-alde, Gaintzako del, Gaintzako del, beste mugak aldatu dituzue baina hau aldatzeko ez duzue abildaderik. Sasiletraduaren etxean ez da suerte onik izango.

Mugarri gurutzetuari kasorik egin gabe, lurak Uztegiarentzat gelditu ziren eta aldaketa honetan ardura izan zuen gizonak infernua jarraitzen du.

Uztegin esan zidatenez *Joantagabriel* apaizak artaldea zuen eta artalde honentzat zaintzailea zeukan.

Zaintzaile honen ohituretako bat besteren sailetan sartzea zen, eta horrelakoetan okasio-biderik edo eztabaidarik ez izatearren, mugarri bat bere lekutik atera eta leize zulara bota zuen. Gero apaizari honela esan zion: *Ez zaituzte gehiago salatuko, ez bahituko.*

Orduan apaizak galdetu zion: *Zer egin duk, ba?. Mugarria atera eta leizean behera bota, erantzun zuen artaldezinak.*

Apaizak hau jakin zuenean, ardi-zainari adierazi zion mugarria bere lekuan ezartzen ez bazuen ez zela salbatuko, zerura ez zela joango.

Gaizkileak esan zion orduan harria ezin zuela berriz eskuratu, eta apaizak esan makila emango ziola.

Makila honekin leizearen goiko ertza jo behar zuela eta berehala bide ederra zabalduko zitzaiola mugarria zegoen tokiraino.

Mugarria dagoen toki horretan gauza eder asko ikusiko dituk, adierazi zion apaizak, baina mugarria bakarrik ukitu, bestela ihartuta geratuko haiz eta.

Artalde-zaiak mugarria bizkarreratu zuenean, ezin geldi egonik, bere behatz txikienarekin aulkia ukitu zuen eta baita berehala behatz txikia iharturik gelditu ere.

Aurrekoak gogorarazten dit Amezketako *Jauregi Soroa* izeneko etxean entzuna.

Bost lagun laian ari ziren eta taldea *bost zoia* izenez ezagutzen zen.

Bost-zoia txarro bat edari sagarrondoaren adarretik zintzilik zeukaten, eta bertan ahaztuta utzi zuten.

Etixeratu ziren eta haietako bat ohartu zen txarroa falta zuela, eta lapurtu egin ziotela pentsatuz, ondorengo biraoa bota zuen: *Txarroa daukanari beso bat ihartuko al zio.*

Gero, ikustea izan zuten sagar arbolaren adarra ihartu egin zela, txarroa bertan zintzilik zeukalarik.

Mugarrien garrantzia ikusi ondoren, mugi gaitezen zerbaite, nekazari-artzain urixka baten inguruan.

Baserrian, su bajuak berotzen duen giro maitekor hartan biltzen ziren ardatzera, linugintzara, artotxuriketara, etab.

Artotxuriketa aipatu dut, eta Igantziko herrian honela esan zidaten.

Ostegun Santu eguna zen artozuritzen ari zirenean, lantaldea osatuta. Gauerdia heldu zitzairen eta egarritu egin ziren, ur freskoaren beharra somatuz.

Bostehunen bat metrotara iturria aurkitzen zen, eta neska gazte ederra ausartu zen ur bila. Suila hartu eta egin beharrekoa egitera abiatu zen.

Baina denbora aurrera zihoan eta neska ez zen itzuli.

Honelako batean artozuritzen ari zirenen etxean soinua iritsi zitzairen teilatutik eta bai berehala ikusi ere tximinitik behera suila urik gabe erortzen, ahots batek esandakoa entzuten zen bitartean: *Suila zuentzat eta neska ederra guretzat.*

Sorginen kontua zen, Igantzin gertatua, eta nire berriemaileak bere gura-soei entzuna.

Ostegun Santu gauez eta Ostiral Santu egunean ez bait da lanik egin behar.

Utz dezagun etxea.

Mendietako bakardadean, artzaina han-hemenka.

Artzainek, goiko belardietan dauden bitartean, txabola izaten dute bere bizi-lekua. Hemen edo honen inguruan egiten dituzte beren lanak eta beren otorduak. Orma estu horien artean igarotzen dituzte beren beharrezko atsedan aldiak. Bonifazio Etxegaraiek idazten duen bezala, antzinako artzaiek ez zuten ezagutzen lur jabetzarik. Artzainak bere mundua batetik bestera igeratzen, ez zuen izaten jabetasun honen beharrik.

Ia gure egunetaraino, artzain munduan teilatua –teilaz egindakoa– jabetasunaren adierazgarri zen, eta txabolari jartzea debekatuta zegoen.

Txabolaren eskubidea ez galtzeko, artzainak edo bere familiako batek, gutxieneko urtean behin azaldu behar izaten zuen bertara.

Egun, lege bihurtuta dagoen ohituraz, artzainak artaldea saltzen ez duen bitartean txabolaren eskubidedun jarraitzen du.

Betelun bizi zen Errazkingo artzain batek kontatu zidan, berari ere bere aitak kontatua, eta hark bere lagun bati entzuna, hau zioena:

Artzain batek Aralarko San Migel Santutegira arkumea zeraman ofrendarako, bere artean aldi hartan ohitura zenez. Baina bidean zihoala tentazioa sortu zitzaion aukera-aukeran. Zazpi pezetatan saldu zuen arkumetxoa.

Artzain hori hil zen eta handik urte batzutura bidegurutze batetan kontaktatzun honen lehenengoari azaldu, bere izenean bildots eskaintza Aralarko San-

tutegian egin zezan eskatuz, horrela han zuen zorra kitatu eta betiko atsegi-nera sartu ahal izateko.

Martxoan gaude, artzain munduaren inguruan. Egun, martxoak 26, zozomikoteen bezperetan aurkitzen gara.

Zozomikoteen kontakizuna zenbait kulturatan agertzen da, adibidez, Grezian, eta ondorengo berriek balio dute bere sorkuntza, euskal alorrean, martxo-apirilean kokatzeko.

Erderak agintzen duen tokietan, kontaeraren funtsezko muina aldatzeke, gertakizuna gehienbat otsailean jartzen da.

Honela, *Legardan* jakin nuen artzainak esan ziola otsailaren hogeita sei an amaitzera zihoanari: *Ai, otsail, otsail, gaurtik nere axuriak ez dik hire beldurrik*, negua menderatuta zelakoan. Otsailak, honela erantzun omen zion: *Falta diren bi egunekin eta martxoa nere lagunak ematen didan batekin, utziko haut artzaina makila bakarrik besapean dualarik*. Hori esatearekin batera elurra hasi omen zuen. Hiru egunetako elurak artaldea goseak hil zuen.

Aietxun, Urralgoiko Haranean, kontatzen zidaten artzainak otsaila gutxies-ten zuela esanez: *Otsail, otsailtxo, ez duk hire beldur nire axurtxo*. Horren erantzuna jaso behar izan zuen ordea, otsailaren zigor-mehatxu bezala: *Oraindik dauzkadan bi egunak, eta martxoak emango dizkidan beste birekin, akabo hire artalde denak*.

Otsail bukaeran, *Zendeako Izan*, Sarasateko artzaina pozez zoratzen omen zegoen, neguaren gaiztoena aise gainditu zuela eta; beraz, ez zuela asmorik, hala zion berak, agindutako ardi-eskaintza otsailari egiteko.

Jokabide kaxkar hau ikusirik, otsailak honela dio artzainari, elurra hastea-reakin batera: *Bi azken egun hoiekin, eta martxoa nere lagunak emango dizkidan beste lauekin, utziko haut hi besapean ardi-goilara hutsarekin*.

Artzain bat Amezketako Udaletzeko bilera batera joan omen zen, eta biharamunean bere aitak batzarrean hartutako erabakiaz galdetzean, semeak erantzuten dio martxoa kentzea erabaki zutela.

Hau entzutean, honela zion aitak: *Nahikoa egin duzue, gure ardi txarrenak horretxek galtzen dizkik*.

Orexan ere maiz aditzen zen: *Orain zozomikoteak dituk*, artaldea eta bizkarrean zeraman ahariak adar-kolpez begia atera zion artzainaz oroiturik.

San Bizente haranako artzaiak martxoari agindu zion, bigun-bigun igarotzen bazen, arkume bat emango ziola. Iritsi zen hilaren hogeitabederatzia eta artzainak esaten dio honez gero ez ziola beldurrik eta agindua ahaztutzeko.

Orduan martxoak erantzun: *Oraindik dauzkadan bi egunekin eta apiril lagunak utziko dizkidan beste hainbesterekin, utziko haur-artzaina ezerezekin*.

Aiako Laurgain auzoan zozomikoteek badute zerbait berria.

Auzo honetan jakin nuen martxoko giroa ona izaten zela, arantza baten azpian zezenak marru eginez gero.

Hori entzutean, martxoak bi egun t'erdiko eguraldia txartu egin zuen eta apirilari beste bi eskatu *arantza azpiko xexen horri marruak egiteko gogoia kentzeko*.

Diotenez, orduan zezenak esan omen zuen, egun horiek igaro arte, zentzuzko jokabidea zela zintzarri bat bete belarrondo bada ez bada ere gordetzea.

Leku batzutan, adibidez, Beasaingo auzo diren Astigarreta eta Garin-en, *Zozomikote* egun hauek *Artzaitxoaren egunak* bezala ezagutuak izan dira.

Zozomikote edo *Artzaitxoaren egunen* kontakizunak, intentzio garbia azaltzen digu. Artzainaren berekoikeria eta esker txarra salatzen ditu, eta ondoren, martxoak eta apirilak ezartzen dioten zigorra, hitzemana ez bete-tzeagatik, ondo merezia.

Eguraldi txarra gora eta eguraldi txarra behera. Beizamako *Urki* baserrian esan zidaten *Murumendiko Damia* airez izar baten antzera itsaso aldera pasatzen bazen eta uretan sartu, trumoi soinua sortzen zela. Honela gertatzen bazen, egun batzutan zehar denbora txarra izango zela.

Murumendiko *Damiaren* bizilekura, hau da, leize atarira joan eta konjuria egin ohi zen. Orduan, *Damia* barruan harrapatuz gero, ekaitza ekartzeko ahalmena kentzen zitzaion.

Hau Matximentako *Igartzola* baserrian kontatu zidaten.

Murumendiko Damie sugarretan eta txinparta boteaz Murumenditik Anbotora eta hemendik Murumendira airean ibiltzen zen.

Murumenditik Anbotorako bidean zihoanean eguraldi ona zetorrela adierazten zuen, eta Anbototik Murumendiruntz ikusten zenean, ekaitza zetorren .

Nire berriemailearen adiskide bat eguraldi onarekin ehizera joan zen batean, *Murumendiko Damie*, Anbototik bere Murumendiko egonlekura joaten ikusi zuen, eta handik bi ordotara eguraldia benetan txartu zitzaion.

Aiako Laurgain auzoa Landarbide baserrian jakin nuen nola hargina bat karobia borobiltzen edo giltzatzen ari zen, baina erori egiten zitzaion behin eta berriz.

Herriko apaizari gertakizunaren berri eman zioten; baina bere eskuhar-tzea alferrikakoa izan zen.

Hori ikusirik azti batengana jo zuten, eta honek esan zien *Anbotoko Damiarekin* hitzegiteko, eta haren aurrera zihoanak beti aurrea eman behar ziola, bizkarra erakutsi gabe.

Damia bere koban zegoen, betiko bere lan jakinean, iruten alegia, kontseju bila zetorkiona bertaratzean, eta arretaz entzun ondoren, honela esan zion: *Zuk harriak atera eta karobia garbitu, eta ondoan zapoa aurkituko duzu ezpainetan ogi puska duela; ogi puska kendu eta karobi ondoan zapoa utzi zirian sartuta, harriaren erretzea zeharo burutu arte.*

Hau entzun orduko, karobilaria aguro asko ezkutatu zen laisterka *Damiaren* leizetik.

Aurrez ikasia zuzen bete zuen, eta hori ikusirik *Anbotoko Damiak* zera bota zion: «Ah madarikatua! Norbaitek ondo erakutsi dik».

Koba aipatu dugu behin eta berriz.

Amezketan, nire berriemaileak bere aitonari entzuna du *Latosa, Zotaleta, Astarteta, Zabalegi*, etab. haizpeetan jentilek bizitzen zirela.

Ernaizko mendi gailurrean labea zuten ogia egiteko, Nafarroako Barrankatik irina ekarrita.

Jentil batek hamasei zezen-larraz egindako zakua irinez betea karreatzen zuen, eta haundiagoa ekartzea izango zuen bidean itxarotea jakin izan balu. Jentilek ez bait zuten atsedena zer zen ezagutzen.

Burniaren berririk ez zuten, eta burniaren orde egurra erabiltzen zuten. Egurrarekin zulatzen zuten arrokako harri librea, harri bizia harrapatu arte. Arrokan lortzen zuten haizpea, beraien bizilekua izango zen.

Sua sortu zuten, bi egur hartu eta bataz bestea berotuz. Lan hau neke-sua zenez, sailak sutan jartzen zituzten.

Behiak jeizten ez zekiten; esnea edateko, indarraren poderioz ganadua hanka batetik altxa eta errapatik edaten zuten.

Ikus dezagun orain sorginen bizimodua.

Sorgin batzu, beren bizilekutik irten, eta Intzako herrira jeitsi ziren –hau Betelun jakin nuen–. Emagin baten bila etorri ziren, eraman eta berriro ekarriko zutela esanez.

Emakumea, ordea, beldur zen eta ez zen ausartzen beraiekin joatera; baina azkenik, baiezkua eman zion eskatzen ziotenari.

Kobara iristean, sorginek aitortu zioten bertan bizi zirela. Eta emaginak erantzun ea nola bizi zitezkeen toki hartan jatekorik ezer gabe. *Gu besteen ezezkotik bizi gara, zuek asko erein eta gutxi biltzen duzuenean, orduan guk asko biltzen dugu, eta zuek asko biltzen duzuenean berriz, guretzat gutxi gertatzen da*, erantzun zioten sorginek.

Anderea ohartu zen bahia ederra zeukatela, eta sorginek esan zioten: *Gu gaeuz bildu eta egunez jaten dugunak bait gara.*

Emaginak bere lana bete zuenean, ogi erdia eskaini zioten, eta berak ixilka-mixilka, beste erdia ere beretzakotu zuen.

Baina etxe aldera abiatzean, emakumea pausorik eman ezinda gertatu zen. Hori ikusirik, sorginek galde egin zioten ea berea ez zen zerbait bereganatu zuen.

Orain bada, beste ogi erdi hori ere zurea da; baina ez ezazula inoiz ezer zeureganatu eskatu gabe, esan zioten sorginek.

Emaginaren etxera itzultzeko bidea itxita zegoen; baina haren bidelaguntzaile sorginentzat ez zen batere eragozpenik izan.

(Kontakizun honek gogorarazten dit Azkuek jasotako beste bat, *Una lamia y su partera* izenburukoa).

Baina sorginek bazituzten beren joku eta jolasaldiak.

Nafarroan, Larraun Ibarreko Alli herrian, *Lezeta* izeneko kobetako batean sorginak bizi ziren.

Larunbat gaua zen sorgin horiek, betiko ohiturari jarraituz, leizeari kanpotik bira batzu ematen ari zirenean, honela kantatuz behin eta berriz:

Astelehena, bat; asteartea, bi; asteazkena, hiru; osteguna, lau; ostirala, bost; eta larunbata, sei.

Larunbat haietako batetan, sorginen jolasaldian egokitu zen Lekunberriko zapataria, aipatutako bailara bereko Astiz herrira zihoala. Oinetakogilea konpondutako zapatak entregatzera zihoan, eta sorginen kantuari hau erantsi zion: *Igandea, zazpi*.

Zapatar delakoa txalkorra edo korkoxa zen, eta erantzun pozgarri hau jaso zuen sorginengandik:

Ekar ezan konkorra eta hoa hortik.

Bere egitekoa bete ondoren, Lekunberrira itzultzean, konkordun izandako zapatariak bere auzoko beste txalkorrekarekin topo egin eta jakin erazi zion berari gertatua. Hori entzunda, txalkorrek berehala esan zion: *Ni ere banoa*.

Esan eta egin. Eguna iristean, konkorduna hurbildu zen sorgintegira, zapatariaren lelo bera errepikatuz. *Igandea zazpi*, baina sorginen erantzun garratza entzun behar izan zuen gizarajoak: *Hartu konkorra eta hoa hortik*. Horrela gure gizontxoak konkorbidun geratu zen.

(Hau Allin kontatu zidaten. Hemen agertzen da sorginek igandeari zioten ezinikusia. Funtsean, kontakizun hau bat dator Xosé Ramon Mariño Ferro-ri irakurtzen diogun korkoxa eta sorginen ipuinarekin. Badu antzik ere Vinson-ek jasotako *Los dos gibosos* delakoarekin).

Ikus dezagun orain –eta honekin amaituko dut– sorginak etxean ez sartzeko zer egin behar den.


Otsagin jaso dut.

Herri honetako sendi bat bere ganaduarekin beti zoritxarrez bizi zen.

Hau honela, nire berriemaileak etxe hartako sarreran ate atzean erratza buruz gora ikusten zuen beti.

Etxekoandreari galdetu zion ohitura haren zergatiaz, eta etxeko emakumeak erantzun zion erratza honela jartzen zuela sorginak uxatzeko, etxetik urruntzeko, ganaduari kalte egin gabe uzteko.

Eta sorginak urrun ditugula, amaituko ditut nire hitzak.



Euskal leiendak / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Euskera : Euskaltzaindiaren lan eta agiria* = *Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca* = *Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque*. – Bilbo : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque. – 37 lib. 2. aldia (1992.1), 433-447 or. – OC. T. 5, p. 313-325